



# Barrainkuena

etxebizitza

Aldakerak: Zubiaurre / Gomendiozubiaurre  
Ahozkoa: Bárrenkuna / Bárrenkune

“... la casería rústica titulada Barraincuena... situada en el barrio de Eitua jurisdicción de la anteiglesia de Berriz, que contiene un área de setenta y tres estados, y se compone de piso bajo, alto y camarote...”  
DJE 1/35 or. (1863)



43° 9' 53"

2° 34' 34"

Berriz Irudian / J.A. Ramos

Baserri honen lehendabiziko aipu dokumentala 1770ekoa da, hots, *Barracaicuena* (1770, BAHP, A134/1.). 1796ko su-erroldean, bestalde, *Barraincoa* moduan agertzen da, eta urte berean, berriz, *Žubia Barrencuena* (BAHP, A571/33.) aldaera. Aurretik ere, *Gomendio Žubiaurre Barrainguena* (1773, BAHP, A509/1. or.) moduan topatzen dugu dokumentazioan. 1857tik aurrera, *Barrancuena* (1857, BUA, Viv.) izena nagusitzen da dokumentazioan, eta azken Udal-eroldaren aipamena ere ildo horretatik doa: *Barraincuena* (1967, BUA, CE.). Auzotarren artean, ahozko transmisioan *Bárrenkuna* eta *Bárrenkune* erabiltzen dute.

Gaur egun daukan itxuraren atzean, aspaldiko baserriaren tankera ezkututzen da. Argazki zaharretan ikusten denarekin konparatzen badugu, XVII. mendean zabaldu zen estiloa antzeman daiteke. Hiru gorputzez osatutakoa

zen. Beheko solairua harrizkoa zuen, harlandua zuen kanpoaldeko kantaletan eta alboetako leiho-ertzetan, eta harlangaitza, aldiz, hormetan. Ez zuen eta ez du erdiko ataririk, eta horren lekuan atea dauka alde batean, hori izanik ziurrenik beranduago egindakoaren seinale, XVIII. mende bukaeran behintzat.

Gaineko solairuak egurrezko egituraz armatutakoak ziren, tartean adreiluzko hormak dituelarik. Lehenengo solairuan hiru leiho zituen: gorputzeko bana. Ganbaran, alderik alde doan balkoi bat dauka. Azkeneko berriztatzean, baoak lehen moduan utzi dituzte, eta hormak luzitu badituzte ere, harlandua ez dagoenetan harria imitatuz pintatu dituzte kantalak, eta dagoenetan, dinteletan dobelak imitatzen saiatu dira.

toponimia

*Baserri izenetan ohiko izan da etxearen deskribapena edo kokapena agertzea eta horrelakoak izan ziren ohikoak Bizkaian, horien lekuko dira gure deiturak, etxe izenetatik sortuak. Baina XVI. mendetik aurrera etxeak ugaritzearekin batera sistema zaharra ez zen nahikoa eta hemen ere, lehenago Nafarroan bezala -ena osagaiaz osatutako etxe izenak ageri ziren. Osagai honen jatorrian noren kasua dugu eta 'etxea' adiera du, Kasu honetan Garaiko Barrainkua deitura dugu oinarrian eta horrenbestez Barrainkuaren etxea esangura du.*